


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko azaroak 19 / III. urtea / 102. zenbakia

Bi hormetara



Pirinioetako Parkea: polemikaren bigarren partea



JOSETXO AZKONA

Edonon dira nabari, baita gu-rean ere, krisis ekonomiko hutsa baino askoz gehiago omen den krisialdi honetatik ateratzeko zenbait giza-kumeren asmo harrigarriak. Ze, harrigarritzat hartu behar baita, derrigor, bere deiturak ezkutatu nahi, baina, bai, bere egiazko izena argitara eman duen iruñear baten jarrera: giltzurrunetako bat mailaguz eskaintzea, besteren batek 5 milioi pezeta aurreratuko diolakoan. Jarauta kalean bizi da Ramon, 36 urteko langabetu koitadua. Ezkondurik dago eta bi seme-alabaren gurasoa da. Hirukotea osatuko du, bestalde, heldu den apirilean; langeldiketa sariaren kobrantza (80.000 pta.) amaituko zaio sasoi berean, hain zuzen ere. Aspaldi dabil lanik gabe, eta garraio negozio bat era-tzea du amets, parada hobearen bila abiatu asmoz. Dirua beharko du haritarako, bere giltzurruna hipotekagai bihurtu duen zenbatekoan: 5 miloi. Jakina da hainbat gaixok badutela gorpuzkien premia bizirik, eta gauzak hola, ez zen harritzekorik izango giltzurruna hondaturik eduki baina, sosez ongi estalirik izan dezakeen behartsu-ren batek Ramonena erostea, gorago aipatu diruaren ordainez. Eta litekena da, zergatik ez!?, ebakuntza-operazio finantziero hori ongi amaitzea; hein haundi batean, dena baita ahalgarri merkatu bilakatu den bizitza honetan. Orain artean lan-indarra salduz joan egin da langile soila bere patua eraikitzen. Gaur egun, berri, bera da salgai jartzen dena, bera bere gorpuzkiak eskaintzen dituen, bere indarra lan jakin batean bideratzeko. Alde nabarmena, bai horixe! Gehiegikeria irudi lezake Ramonena. Hala ere, hola izan ala ez izan, geroz eta gehiago dirateke halakotsu soluziobideak hartzeok prest daudekenak: etsipenaren menekoak...

Sozialismo Errealak porrot egin du. Sozial-Demokraziaren Ongizate Estatua erdi erorka dabil Europan, eta Kapitalismoaren defendatzaileak sutuenak ere (liberal populistak eta transnazio-nalak) ez dira gauza mundu indus-trialeko egungo enplegu mailari eus-teko: Estatu Batuetako 'General Motors-ek' 90.000 langile kaleratu nahi di-tuela hurrengo hiru urteetan iragarri berri du, hortxe Seat-eko arazoa, etabar.

Itun Sozialaren beharra inbertsioa, produktibitatea, enpresa etekinak eta enplegua haz daitezten batetik, eta bes-tetik, langileen aldeko aurrekontu oro-korrak eta beste neurri berezi batzuk lortzea, horra hor non dugun 'botikarik onena', errotik eri dagoen sistema bat bizkortzeko. Onenean ere, neurri zu-zenkari horiek eskuratuko balira, aza-leko sintomak baizik ez ziren ezaba-tuko. Gaitz-eragilea(k) bestelakoa(k). dira, ordea: eredu ekonomiko bera, kontsumoarekiko erabateko menpe-kotasuna. Bien bitartean, beti izango da baten bat bere giltzurruna hipotekatzeko prest dagoena, eta beti baita giltzu-run horri doakion eroslea ere. Merkatu legearen arabera, noski.

Pirinioetako Parke Na-turala izendatzeko lehen pausoa eman berri du Na-farroako Gobernuak, Ba-liabide Naturalen Plangin-tzaren aurreproiektua aur-keztu baitie dagoeneko ber-tako udal eta erakundeei. Luze gabe aterako da infor-mazio publikora, eta Gobernuak paratutako epeak ongi betetzen badira, ekai-nerako proiektua onartuko da. Honekin batera, Urbasa eta Bardeetakoak aur-keztu beharko ditu Gobernuak luze gabe.

Proiektu honek eztabaida sortu zuen Gabriel Urralbururen gobernuak aur-keztu zuenean, eta eztabaida sortuko du orain ere, jarrerek errepikatze bidea baitaramate. Orduan hiru izan ziren planteamenduak: parkearen kontrakoena; plagintza sozio-ekonomikoarekin batera onartzearen aldekoena, eta aurretik baliabideen plagintza eskatzen zutenena. Azken baldintza hau bete da orain-goan, baina Erronkariko ordezkariak jada beren oposizioa erakutsi diete Go-bernuko ordezkariak, Iruñean egin zen bileran. Parkeak jardueraren murrizketa ekarriko duela eta bertako erakundeen gainetik egongo dela dira haien argudioak. Parkearen alde daudenek, baina, horren atzetik jarrera «hertsiegiak eta atzera-koiak» daudela diote. Aurrera aterata ere, polemika izango da, ezbairik gabe.



Gure aukerak

ERAKUSKETAK

Javier Eskirotz artistaren erakusketa zabalik dago Tafallako Kultur Etxean, azaroaren 24a arte, Kultur Patronatoak antolatutik.

Jose Ignacio Agorreta pintorearen erakusketa zabalik dago Iruñean, Central Hispano bankuak Carlos III. Etorbidean duen aretoan. Abenduaren 15a arte izango da ikusgai.

ANTZERKIA

'Porca miseria' izeneko antzezlan taularatuko du gaur ostirala, azaroak 19, Luciano Federico taldeak, Tafallako Kultur Etxean.

'El cambiazio' Melodi Sister cafe-teatro taldeak prestatutako obra izango da ikusgi igande honetan, azaroak 20, Nafarroako Antzerki Eskolan, San Agustín kalean. Antzerki emanaldia arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

'Bazter utzitako panpina baten historia' izeneko antzezlan aurkeztuko du bihar, azaroak 20, Iruña Pequeño Teatro taldeak Etxarren herrian. 'Euskera-Arakil' zikloaren barruan, arratsaldean izanen da.

'Francisca alegre y ole' izeneko antzezlan plazaratuko du igande honetan, azaroak 21, Talo taldeak Eskarozen. Emanaldia arratsaldeko 20.00etan hasiko da, Ibarreko etxean.

'Nornorinork... hau saltsa' antzezlan taularatuko du Antxieta taldeak heldu den ostegun, azaroak 25, Iruñean. Hiriko udalak antolatuta, arratsaldeko 20.30etan hasiko da emanaldia.

BERTSO SAIOAK

Iñaki Murua eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira gaur ostirala, azaroak 19, Arribeko Elkartean, bertso afari batean.


Angel Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizaso bertsolarien saioa izanen da heldu den ostegun, azaroak 25, Lesakako Arrano Elkartean.

Larrau-Otsagi

Piriniotan jarraituko dugu aste honetan ere, Nafarroako Mendizaleen Federakundeak antolatu duen txangoarekin. Pasa den asteen Gipuzkoara lerratu ginen, baina aurrekoan Aezkoan barna aritu ginen, Irati basoaen inguruan, eta oraingoan ere, hor nonbait ariko gara. Ongi aukeratutako ateraldiak, hain zuzen ere, garai hau baita proposena Irati eta antzeko tokietara joateko. Oraingoan Larrauko mendatea eta Otsagi bitarteko ibilbidea egingo dugu, Abodiko mendizerratik zehar.

Ibilbidea, beti bezala, goizeko zortzietan aterako da Iruñeko autobus geltokitik, eta Zaraitzuko hiriburua, Otsagi hain zuzen, izango du helmuga. Hortik Larrau mendatera abiatuko gara, baina puntara heldu baino lehen, Oiokia lepotik hasiko gara igotzen. Igoera baino pasealdi luzea dela esan behar, laua baita zeharo.

Oiokiako lepo honetan zegoen lehen mendatearen aduna eta muga, gaur egun itxita, hain zen gutxi erabilia. Hortik hartuko dugu Abodi mendizerrarako bidea. Eguraldia ona izanez gero, izugarritzko ikus-



mira dastatu daiteke Irati ohianaren gainean, sasoi honetako koloreak lehertzeaz baitaude. Hortik ere Ori (2.020) mendia izango dugu ikusgai, Kantauritik hasita 2.000 metroak daukan lehendabiziko mendia, eta Euskal Herri osoko ikusgarritakoa, neurritz eta izatez. Oriz aparte Piriniotako beste hainbat aldeak ere antzeman daitezke atalaia paregabe honetatik.

Hortik barna Alforjasetako lepora helduko gara, eta hortik

Botin bordetara jeitsiko gara. Horra heldu baino lehen, baina, zenbait trikuharri ikusiko ditugu, Harrizabal izenekoak. Hortik behera Muskilda baselizara helduko gara, otsagabiarrendako oso berezia eta estimatua. Bertan izaten dira urtero Otsagabiako dantza famatuak. Hortik Otsagira ordu erdiren bat. Orokorrean ateraldi biguna eta atsegina oso, aproposa tontorrak eta maldak sobera gustuko ez dituztenendako.

ASTEKO PERTSONAIK



Jose Antonio Lopez Cristobal
Zinegotzi ohia

Joan den asteartean hil zen El Cairon 72 urtekin Jose Antonio Lopez Cristobal, Herri Batasuneko zinegotzi ohia Iruñeko udalan. Bere hamar seme-alabek ordainduta, emaztearekin batera Egiptora joan ziren, bere ametsak bat piramideak ikustea baitzen. Eta han zeudela hasi zen lehen oinazeak sentitzen, orain dela urte batzuk operazio latza izan baitzuen aorta arterian. Lopez Cristobal 1967 eta 1974 bitartean zinegotzia izan zen Iruñeko udalan Tercio Familiar izeneko taldearekin. Ondoren 1987an, berriro aurkeztu zen hauteskundetara, orduan HBrekin, eta 1991a arte iraun zuen lan horretan. Legegintzaldia amaïtu zenean, erretiratzera erabaki zuen, beste arrazoi batzuren artean «udal honek onartu dituen erabakien erruenerako bat sentitzen naizelako».



Miguel Sanz
Gobernuko lehendakariordea

Aste honetan iragarri zuen Miguel Sanz lehendakariordeak Aurrekontu Proiektuan zenbat diru jasoko duen Hizkuntz Politikarako sailak, eta «aurtengo kopurua iazkoaren antzekoa» izango zela entzun bagenuen ere, egia beste bat da. Aurten iaz baino 145 milioi pezeta gutxiago iragarri dituzte sail honetarako, zehazki 607 milioi pezeta. Murritzutako milioi horietatik, 80 legez kanpo dauden ikastoletarako ziren, azkeneko urtetan, Parlamentuak eskatuta, subentzioa jasotzen dutenak. Gobernuak, ordea, partida horretan bi milioi besterik ez ditu iragarri, legez 82 eman behar baditu ere. Oposizioak garbi adierazi zuen Exekutiboak atera beharko duela diru hori, baina Hizkuntz Politika sailetik kentzen badu beste ekimen batzuren kalterako izango da.



Diian Angelov
Futbolaria

Oraingoan dela bi urte iritsi zen Iruñera Diian Angelov bulgariarra, Osasuna taldean aritzeko. Denbora honetan, ordea, ez du jokatzeko aukera handirik izan. Lehendabiziko denboraldian hamaika partidutan hartu zuen parte, iazkoan laueta bakarrik, eta aurtengoan ez du jokatzeko izan. Gauzak horrela, Bulgariara itzultzea erabaki du jokalariek, Sofiako Levski taldean aritzeko. Bere asmoa Espainiako talderen batean jokatzeko zen, baina azkenean, sorterrira joan beharko du. Datozen bi urtetan Estatuko talderen batekin jokatzeko kontratua sinatzen badu Osasunak 15 milioi pezeta jasoko lituzke, erabaki zuten klausularen arabera. Egia esan behar bada, ez zen jokalaria txarra Angelov bulgariarra, eta Zabalzak berak horrela adierazi zuen.

AHAZTU GABE!

DONEZTEBEKO Feriak ospatzen dira gaur, urtero bezala, San Martin egunaren ondorengo ostiralean. Goizean, azienda feria izanen da, eta aldi berean, mota guztietako postuak jarriko dituzte, arropa, artisautza, janariak, eta abar. Eguerdi aldera, eta Merkatu plazan bertan, Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak ariko dira, Bittor Elizagoien gajartzaile lanetan ariko delarik. Arratsaldean berriz, Herri Kirol Federazioak antolatuta, aizkolari eta arpanlarien bigarren mailako txapelketaren saioa izanen da, seiretan hasita, herriko pilotalekuan. Bertan, Narciso Saralegi, Daniel Vicente, Patxi Mindegia, Patxi Larretxea eta Martin Jaunsaras aizkolariak gogor ariko dira. Arpanlariak, berriz, Carlos Goldarazena eta Patxi Oses, Javier Osinaga eta Emilio Zunzarren, Alberto Larraioz eta Eduardo Norrondo, eta Miguel Angel Zabalo eta Juan Jose Lasarte izanen dira. Eguna amaitzeko, Rock kontzertua hasiko da gaueko 10.00etan Eskoletako Pilotalekuan, Doneztebeko gazteek antolatuta. Bertan Bizkarrezurra, Ostikada eta Zumaika taldeek joko dute.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralerara, **'Zokobetailu'** goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

EUSKALERRIA Irratiaren aurkezpen festa izango da datorren ostegun, azaroak 18, Barañango Haizea Elkartean. Arratsaldeko 20.00etan hasita, bertan, irratiko arduradunek bere asmo berriei buruz mintzatuko dira. Ondoren, dantzariak, akordiolariak ariko dira, eta jaia luntx batekin amaituko da. Bereziki, Barañango euskaldun guztiak gonbidatu dituzte jaiaren parte hartzera.



HERRIZ BERRI



Altsasu

Kimaren Euskararen Astea

PATXI ULAIAR / ALTSASU

Hurrengo astelehenean hasiko da Kima taldeak eta Altsasuko Udalak antolatu duten Euskararen Astea, Altsasuko argazki zaharren erakusketarekin. Mintzaldiak, antzerkia, txotxongi-loak, helduak zein haurrendako, euskararen presentzia herrian indartzeko. Hau da, berez, Udalak eta Kima taldeak elkarlanerako egin duten akordioaren lehen emaitza.

Kima taldea duela bi urte sortu zen Altsasun, herrian euskara bultzatzeko zegoen premiak eraginda. Arrasaten sortu zen mugimenduaren haurraren emaitzak ez dira oso emankorrak izan orain arte, ahaleginak ahalagin, partaidetza eskasa izan baitute ekintzek. Hori zela eta, aurtengo hasieran aztertu zen udalaren euskara zerbitzuarekin lan egiteko aukera, indarrak batus, eta lanak banatuz, eta hortik aste honetan hasiko den euskararen astea.

ARGAZKI ZAHARREN ERAKUSKETA Astelehenean, esan bezala, Euskadi Kutzak herrian duen Erakustokian zabalduko da herriko argazki zaharren bilduma. Erakusketa arratsaldeko 7etatik 9ak arte izango da zabalik, eta asteleheneetik igandera bitarte bisitatu ahal izango da. Asteartean, hilak 23, 'Oz-eko aztia' izeneko pelikula ikusi ahal izango da udal liburutegian, arratsaldeko bost t'erdietan, eta ostegunean, hilak 25, Enkarni Genua donostiarraren txontxogilo taldea ikusteko



Altsasun euskara bultzatzeko sortu zen Kima.

ALBERTO BARANDIARAN

aukera izango da, udal ludotekan eta arratsaldeko bost t'erdietatik aurrera.

Ostiralean, hilak 26, Euskal Herriko ohitura zaharrei buruzko hitzaldia emango dute Iruñeko Ortizadar taldeko partaideek, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Gure Etxean, eta larunbatean, disko eta liburu azoka egiteko zen Euskadi Kutzaren aretoan, arratsaldeko 6etatik 9ak bitarte. Bestalde, larunbatean ere, herri

afaria antolatu du Kima taldeak, eta bertara joateko gonbidapena luzatu die Altsasuko euskalzale guztiei. Aferria herriko jatetxe batean izango da, arratsaldeko bederatzi t'erdietan eta izen ematea Udaletxean bertan, Las Vegas edo Biltoki tabernetan egin daiteke. Horrekin batera, larunbatean zehar trikitilariak, txistulariak eta fanfarreak ariko dira kalez kale. Igandean, amaitzeko, disko eta liburu azoka izango da

berriro Gure Etxean, eta arratsaldeko zazpietan 'Gus' antzerki taldearen emanaldia izango da, toki berean.

Egitaraia behar bezala aurrera eramateko laguntzaileak behar ditu taldeak, eta parte hartu nahi duena ager dadila gaur, arratsaldeko zazpietan Gure Etxean Kima egin behar duen bilerara, edo dei diezaiola, goizez, Maite Iparragirre euskara teknikariari, 56 21 61 telefonora.

Irurtzun

Ingurugiroa aztergai

IRUÑEA

Ingurugiroaren IV. Astea ospatu da aste honetan zehar herrian, eta bertan filmeak, mintzaldiak, antzerkia eta praktikak izan dira. Larrazpin eta Iratxo elkarteak antolatutik, Irurtzuno Udalaren eta Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Departamentuaren laguntzaz, heldu den igandera arte iraungo du.

Gaur, ostirala, 'Ur baliabideak Nafarroan eta beren erabilpena' izenburua daraman hitzaldian, Julia Ibarra biologoak eta Patxi Gorraiz Itoizko Koordinatzailearen partaideak hartuko dute parte. Hitzaldia 20.00etan hasiko da Kultur Etxean. Biharko, hain zuzen ere, eta gaiarekin jarraitzeko, Itoizko urtegiaren proiektuak



Itoitzera bisitaldia egingo da bihar.

hondatuko dituen zonetarako txangoa antolatu dute. Goizeko bederatziatan aterako dira Irurtzundik eta bazkaltzerako itzuliko dira. Eguerdian bazkaria izan-

go da denendako Larrazpi gazte elkarteak. Igandean, sendabelarren erakusketa paratuko da Foru Plazan, 11.00etatik 14.30ak bitarte.

Arbizu

Kirolaririk onenak aukeratu dira laster

IRUÑEA

Sakanako II. Kirol Astea ospatuko du bertako Kirol Patronatuak abenduaren 13tik 19ra, eta hori dela medio, abenduaren 18an egingo den afarian aukeratu dira urteko kirolaririk onenak. Kirol elkarteak, ikastetxeak, erakundeak eta edozein pertsona egin dezake horretarako proposamena. Kirolariak —emakumezko zein gizonezko mailetan—, kirol taldeak eta euskara gehien erabili edo bultzatu duten taldeak sarituko dira bertan. Proposamenak abenduaren 2a, goizeko 12ak baino lehen bidali behar dira Arbizuko Udalera edo Altsasuko Kirol Patronatura.



TUTERAn izango dira heldu den astean 'La Caixa' fundazioak eta ITGAK arbolazantzari buruz antolatu dituen ikastaroak. Ikastaro hauek nekazari, teknikari, ikasle, kooperatiba eta enpresei daude zuzenduta, eta bertan azken berrikuntza tekniko eta ekonomikoak azaldu eta arlo honek duen etorkizunari buruz azterketak izango dira. Erribera beti izan da kalitate handiko fruta ekoizlea. Katalunia eta Aragoitik gertu egonda, gainera, abantail handiak dakartzio, Euskal Herriarekin batea zonalde hauek baitira fruitaren kontsumitzaile nagusienetakoak. Izena emateko 'La Caixa-ren' bulegoetara jo behar da, eta ikastaroak goizeko 9ak 12ak bitarte izango dira.

ALTSASUko Emakume Gelak ekintza kultural zenbait antolatu ditu hurrengo egunetarako, eta lehendabizikoa asteartean izan zen Iratxeko kontsumitzaileen elkarteak eman zuenarekin. Duela urtebete eskas sortua, udalaren Emakume Batzordearenpean dago zerbitzu hau, eta oraingo egitarauan pelikulak, ikastaroak, eta mintzaldiak izango dira aukeragai.




ARANGURENgo alkateak hondakinen tratamendurako zentrua baietsi dituzten sententziak kritikatu ditu, eta justiziari «boterearen menpean dagoela» leporatu. Jose Antonio Villamayoren ustetan gobernuak lanak geldiarazi beharko zituen aspaldian, lehendabiziko errekursoak aurkeztu zirenetik, «baina justiziari errespetu gutxi erakutsi dio, ingurugiro azterketarik ez zegoela kontuan harturik». Villamayorrek eskutitz batean azaldu zuenez, «ez gaitu herritu Goreneko Epaitegiaren irritziak, boterearen menpe eta ahulen kontra egon baita beti». Alkateak ere zentruan antzemandako hainbat irregulartasun aipatu zuen.

BARAÑAINek askaren txoko honetan marka guztiak gaintzeko bidea darama. Orain UGT sindikatuak egindako salaketari dagokio txokoa, udalak zenbait zerbitzu pribatizatze erakutsi duen nahiak haserre sortu baitu bertan. Udalak, Lagunak elkarrearen langilegoa murriztu, psikologoa kendu eta langile sozialendako postuak bete gabe utzi nahi ditu, eta udalaren langilegoaren barruan dauden desorekak eta eskasiak salatu du UGTk.

PIRINIOETAKO PARKE NATURALA

- Erreserba osoa
- Natur erreserba
- Abeltzaintzakoa
- Abeltzaintzakoa, interes naturalistikoduna
- Oihan erreserba
- Interes naturalistikoduna
- Nekazaritza-abelzaintzakoa



I. MARTIARENA

Iturria: Diario de Navarra

Parkea bai, parkea ez

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Pirinioetako Parke Naturalerako lehen pausoa eman berri du Nafarroako Gobernuak, Balia-bide Naturalen Antolaketa Egitasmoaren aurreproiektuarekin. Oraindik ez da ofiziala baina udalek esku artean dute, eta duela lau urte eztabaida eta oposizioa sortu zuen proiektua berriro mintzagai izango da Erronkarin, Zaraitzun eta Aezkoan. Lehendabiziko erreakzioak sortu dira, eta Erronkariko ordezkariak, kasu, oposizioa azaldu diote Gobernuari. Beste ibarretan mintzatzekoak dira, baina eztabaida eta polemika mahai gainean dago. Parkea, bai ala ez?

Duela lau urte izan ziren jarra berberak errepikatzenkoak dira orain ere Nafarroako Pirinioetan. Gabriel Urralbururen Gobernuak Pirinioetako Parke Naturala izendatzeko asmoa agertu eta berehala inguru osoa astindu zuen eztabaida ez da oraindik ahaztu, eta proiektu berriarekin gogoratuko da, gogoratu ere. Hiru jarra nabarmendu ziren orduan: parkearen kontra zeudena; garapen sozioekonomikorako egitasmoa eskatzen zutenena, eta orain aurkeztu den Balia-bideen Egitasmoa aurretik nahi zutenena. Izabako Udalak eta Erronkariko Batzarrek ezetza biribila eman zieten proiektuari eta eztabaidari, eta nahiz eta zenbait bilera izan ziren gainontzeko ibarrek, azkenean ahaztu egin zen, Orduko kritika nagusietako proiektua onartzeko Gobernuak erakutsi zuen ardura falta izan zen, lehen parkea eta gero Balia-bide Naturalen Egitasmoa aurkeztuko baitzen. Hau da, etxea teitlatutik hasita.

Joan den martxoan Nafarroako Parlamentuak Pirinioetako, Bardeetako eta Urbasako parke naturalak izendatzeko prozedura hasteko agindua eman zuen, Balia-bide Naturalen Antolaketa Egitasmoaren aurreproiektuarekin, hain zuzen ere. Hau, prakti-

kan, parkeak hartuko lituzkeen lurren ezaugarriak eta erabilerak zehaztea eta arautzea da: inguru osoren jarduerak sailkatu eta mugatzea, alegia. Aurrerapauso handia bazuendako, ez hainbeste besteendako.

«Proiektu honek apenas daukan desberdintasunik aurrekoarekin», dio hasieratik parkearen aurka azaldu zen koordinakundearen partaide batek, «eta testua hitzez hitz erantzun daiteke, gerezuz josita dago eta». Jarrera hau bereziki indartsu eta zabaldua da Erronkarin, eta bertako zenbait alkatek oposizioa erakutsi diote dagoeneko Gobernuari, aurreproiektua aurkezteko Iruñean egin zen bileran. Parkearen kontrako ustea nagusi baita ibarretan.

Jarrera honetarako argudioak bi dira, hitz bitan: parkeak murrizpenak ekarriko ditu bizilagunen jardueran eta bertako era-


Parkearen kontrakoan argudioak bi dira: murrizpenak ekarriko ditu jardueran, eta bertako erakundeek gainetik beste aginteak ezarriko dira.

kundeek gainetik beste aginteak ezarriko dira. «Hemengo abeltzaintza eta nekazaritza hilda daudela diote, eta gutxiak dihar-gatzea, alegia. Aurrerapauso handia bazuendako, ez hainbeste besteendako. «Proiektu honek apenas daukan desberdintasunik aurrekoarekin», dio hasieratik parkearen aurka azaldu zen koordinakundearen partaide batek, «eta testua hitzez hitz erantzun daiteke, gerezuz josita dago eta». Jarrera hau bereziki indartsu eta zabaldua da Erronkarin, eta bertako zenbait alkatek oposizioa erakutsi diote dagoeneko Gobernuari, aurreproiektua aurkezteko Iruñean egin zen bileran. Parkearen kontrako ustea nagusi baita ibarretan.

Erabileraren antolamenduen ekarriko duen murrizpenez gain, bertako erakundeek autonomiaren galduko den beldur dira parkearen kontrakoak. «Aurreproiektuan ez dira ezertarako ere aipatzen batzarre nagusiak, eta hori oso larria da. Egin behar dena da erakunde horiek eraberritu eta bultzatu, eta ez, zaharkiturik daudelako, bat-batean kendu». Planteamenduen atzetik Pirinioetako garapenari buruz filosofia kontserbadore samarra ere badago. «Pirinioak gehiago babestu nahi dituztela diote, baina egia esan behar da: orain inoiz baino animalia eta landare gehiago dago mendiaren eta basoetan. Ardiak, kasu, betidanik aritu izan

dira Larran, eta orain ezin dute, eta ondorioz marmotak pilaka dira orain. Zer nahi dute, bada, animaliak eta paisaia babestu eta gizakumeak ahaztu? Ba, horren kontra gaude, argi eta garbi».

Jarrera nagusia izanik ere, parkearen aldekoak badira Erronkarin, eta jarrera «hertsie-



Lakora, Juan Pito bentaren gainean. Inguru berritu dira Euskal Herriko parajerik aberasenetakoak.

Erironkarin oposizioa nagusi da, Zaraitzun oraindik ez da ezer erabaki, eta Aezkoan hitz egiteko prest daude batzuk.

giak eta dogmatikoak» daudela diote. «Parkearen kontrakoak pinu gehiago ezingo dela moztu eta luraren jabetza galduko dutela besterik ez dute esaten. Eta egia izango da neurri batean, baina ez dute beste irtenbiderik proposatzen. Ezetza da haien argudio bakarra». Jose Mari Baraze Izabako zinegotzia izan da parkearen alde ibarretan agertu den bakanetakoak, nahiz eta, bere ustetan, lehen proiektua hasieratik gaizki egin izan. «Nahasketa handia izan zen orduan, Gobernuak ere ez zeukalako garbi zer egin nahi zuen, eta informazio kontrajarriak sortzen ziren egun batek bestera. Berehala zabaldu zen kanpoko 'inposizioa' zela eta pinu gehiago ezingo zirela moztu, baina ez zeuden bestelako ideiak». Beraiek ikerketa sozioekonomikoa egitearen aldekoak ziren, baina hori eztabaidatzeko egin zen bozketa galdu egin zuten duela lau urte.

Beste ibarretan ere mugitzen hasiak dira. Aezkoan Batzarre Nagusia egitekoa zen aste honetan, lehendabiziko jarrerak zehazteko, eta Orbaizetan ere herri bilkura egingo dute laister. Bertan begi onez ikusten dute proiektuak daraman bidea, hori baita hasieratik eskatzen zutena. «Baliabideen Egitasmoa parke natural baten oinarritzko zutabea da», dio Malli Txapar alkate orbaiztarrek, «eta hori gaizki egiten baldin bada, parkea ere gaizki aterako da. Ongi egiten bada, proiektua ona eta interesgarria izan daiteke, bai ingurugiroaren babeserako, baita zonaren garapenerako ere». Bere ustetan, erakunde lokalen autonomiari eustea eta bertako produktua bultzatzea izango lirateke parke idealaren ezaugarriak,

eta horretarako gauzak ongi egin behar direla azpimarratu du. «Gobernuak konprometua hartu du erabaki guztiez hemengo erakundeekin hitz egiteko, eta hori funtsezkoa da. Guk batzarre egingo dugu herriaren, eta onespena ematen bazaio, ideia eta ekarpen franko eramango ditugu».

Horrelako proiektuak hitz egiten denean, ordea, beti sortzen da turismoaren 'mamua'. Aurreko proiektuan Iratiko oihanean hotel bat eraikitzeko asmoa aurriksutuzen zen eta horrek izugarriko oposizioa sortu zuen. Oraingo elkarrizketan herri bakoitzeko Hirigintza Egitasmoa errespetatuko zela agindu zieten Gobernuko ordezkariak alkateei, baina arazoak izan litezke horrelakorik oraindik ez duten herrietan.

Balitzko parke naturalaren ibilbidearen hasiera besterik ez da, baina jarrerak berriro zehazteko bidea daramate. Erronkarin oposizioa nahiko garbia da, Zaraitzun oraindik ez du ezer erabaki, eta Aezkoan hitz egiteko prest daude batzuk. Aurrera egingo ote duen ikusteke dago, eta batzuek zein besteak paratuko duten interesa eta adoreen arabera erabakiko da balantza. Nor bere aldera desorekatzeko ahaleginak hasiak dira, hasi ere. Erronkariko Udalak 50 milioi pezetako dirulaguntza jaso berri du Cedema-Garalur erakundetik eta bertan zegoen koartel zaharra saldu berri da naturaren inguruko zentro bat egiteko. Horrek haserre sortu du beste herrietan, diru eskean eta eskasean haiek ere. Baina Erronkarik, lehen, parkearen kontra bozkatu zuen, eta bertako alkatea Batzarre Nagusiaren burua da egun.



Abaurrepea.

ALBERTO BARANDIARAN

Turismo eta oihargintza, kaltegarrienak

A.B. / IRUÑEA

Udalei emandako aurreproiektua luze gabe aterako da informazio publikora, eta orduan bi hilabeteko epea izango da alegazioak aurkezteko. Ondoren Lurralde Antolamendu sailak bere proiektua aurkeztuko du, eta beste bi hilabetez aterako da informazio publikora. Ondoren, Nafarroako Gobernuak, hala erabakiz gero, onartuko du proiektua. Hau da, beraz, Parke Naturala izendatzeko lehendabiziko urratsa.

Oraingo aurreproiektua zazpi ataletan dago banatuta, eta bertan, zonaldearen ezaugarriak, orain arteko garapena eta arazoak, babes-eremuaren azalpena eta sail bakoitzarendako irizpide

nagusiak azaltzen dira. Ekologi-koki oso garrantzitsu eta aberasgarritzat jota, gizakumearen iharduera oso trinkoa izan da inguru honetan, baina, proiektuak azaltzen duenez, «ez du bere balio ekologikoa gutxitu zezakeen kalterik jasan». «Hala ere» jarraitzen du azterketak, «azken hamarkadetak aurrerapen teknologikoen inoiz baino eragin handiago sortu dute, eta arazoa eta zergatiak ongi aztertu egin behar dira». Hori ez da egun dauden ihardueren kalterako izango, «aitzitik, dauden baliabide guztiak bultzatu egin behar dira, arrazionalki eta modu iraunkor batez, bertakoen bizitzak maila hobetzeraren».

Egun baliabide naturalendako dauden arazoak aipatzen dira



Larra da babestu nahi den zonalderik bereziena.

segidan. Abeltzantzak eta nekazaritzak ez du, txostenaren arabera, arazo larriak sortu —zonaldearen % 7 baino ez du hartzen— eta soilik higadura izan da ondorio kaltegarria. Oihaneak, ordea, zonaldearen % 70 hartzen dute, eta beren utsiapenak sortu dituen kalteak zuzendu beharra azpimarratzen du txostenak, izan diren plagintza okerrak direla eta. Turismoa ere bultzatu beharrela dela azpimarratzen da bertan, baina era «ordenatu eta zuzen» batean. Akanpadak hondakin ugariak sortu ditu, eta skiak paisaietan kalteak eta higadura sortu ditu. Horregatik, txostena pista gehiago zabaltzearen kontra azaltzen da eta baita Larra barruan beste eraikinak egitearen aurka ere.

Paisaiari kalte egin dioten ihardueren barruan azpimarratzekoak dira pagadien barruan egin diren pinu birlindaketak, Irabiako uharkaren inguruan eta Belaguako larreen, eta Ibañetatik Ortanzurieta daraman errepideak, Orikoa, Belaguako aterbea eta bertako eski pistak. Halaber, geruza begetalaren kalterako izan dira abeltzantza eta zenbait errepide eta azpiegiturak. Fauraren atalean, ixileko ehizen ondorioak dira azpimarragarrienak, «nahiz eta oso larria edo zabaldua ez izan». Hartza, oreina, basurdea, orkatza eta sarriok izan dira kalteuenak.

Guzti hau konpotzeko, irizpide orokor batzuk zehazten ditu aurreproiektuak. Orokorrean abeltzantza eta nekazaritza bultzatu egingo da ingurugiroari kalte egingo ez dioten tokietan, eta, abeltzantzaren kasuan, zehaztu egingo dira buru kopuruak eta abere motak. Oihargintza, ordea, bultzatu egingo da, eta galdutako oihanak berreskuratzeke ahaleginen beharra azpimarratzen da. Turismoa arautzearen alde azaltzen da proiektua.

Gazteendako Zokoa



Nafarroako taldekako xake Txapelketaren bostgarren ihardunaldiko partida. 1993ko azaroaren 13an jokatu. Juan Luis Burusco, ELOrik gabekoa (Oberena 'B') Iñaki Rebole, 1.965 ELOkoa (Orvina 'A').

1.d4, f5; 2.Zf3, Zf6; 3.Ag5, e6; 4.e3, Ae7; 5.Ze5, 0-0; 6.Ad3, d6. Txuriak erasoan saiatu dira, baina jokaldi hau nahikoa da denboragaldutela erakusteko. 7.Zf3, bZ-d7; 8.0-0, h6; 9.Af6, Zf6; 10.c3, g5. Oso jokaldi ausarta. Txuriek denborak galdu dituzte.

11.h3, Ad7; 12.bZ-d2, De8; 13.Zh2, e5; 14.e5, e5; 15.Dc2, e4. Beltzen aurrerapena sendotuta geratzen da. 16.Ae2, Eh8; 17.fG-e1, Ae6; 18.dZ-f1, Ad6; 19.a3, Dg6; 20.g4. Askoz hobeto daude beltzak. Txurientzat ez zen erabaki erraza. Barneratzea lagundu zutela erran behar da, ordea. Ikus koadroa.

20...h5; 21.h5, Zh5; 22.Eh1, Zf6; 23.Zg3. Orain gazteluko peoia eroriko da. Eta jokorik ez dute txuriek. Hurrengo jokaldietan erabat gaintituak izanen dira.

23...f4; 24.gZ-f1, Ah3; 25.f3, Af5; 26.Db3, f3; 27.Af3, Ae4; 28.f4, g4; 29.Ae4, Ze4; 30.Db7, Zc2 xa; 31.Eg2, Af4; 32.Ge2, g3; 33.Zf3, Dg4; 34.Zg1, Zh3; 35.De4, Zg1; 36.Eg1, aG-e8; 37.Dd4 xa, Eh7; 38. Ge8, Ge8; 39.Dd3 xa, Eh6; 40.Gd1, g2. Egoera konponezina da. Txuriek utzi zuten partida.

ENEA ANDUEZA

Artega zegoen eta bere aurpegiko zimurak etengabe ari ziren mugitzen. Aurpegi hura ez zen mutil koxkor batena, ez, aspaldian gaztetasuna igarotako gizon heldu batena baizik.

Ilea erortzen hasi zitzaion da-goeneko eta aurpegiaren goikaldean zeuzkan betain iletsuak bezala, oraindik zutik zirauten ileak ere urdintzan hasi zitzaizkion. So eginez gero menpean uzten zintuzten begi marroiak, tabakoaren ondorio ziren marra mehexka gorri aunitzez zeuden beterik. Sudur luze eta lodi batek apaintzen zion aurpegia eta guziz lehorturik zeuden ezpain meheek, aho lizun eta heze baten sarrera osatzen zuten. Egunean zehar kendu gabeko bizarrak zeraman, ur eskasaz goizean garbiturik aurpegian, orain nagiak ezin kendurik malkarrez zegoena. Distantzia normaletik begiraturik, guzi horrek aurpegi triste eta larritu bat isladatzen zuen, baina barrutik irteten zen poztasun izpi ahul batek argitzen zuen. Bere gorputz mehea

baldarki jantzirik zegoen, bakero zahar eta kamiseta berde batez; oinutsik zegoen eta oinaren orpoa batez ere, belztuta, garbitu gabeko lurrean zegoen zikinkeriaz.

Arestian aipatutako tipo hau uneoro ari zen mugitzen, behar beharrezkoa zuen zerbait bilatuko balu bezala. Eta lehenago txukundurik egona zela zirudien gela, orain hankaz gora jartzen ari zen. Kaxoiak behin eta berriz itxi eta irekitzen zituen, bakoitza hiru aldiz gutxienez, eta pasada bakoitzean, orriak azkarki begiratu ondoren, nazka handiko aurpegia jarriz eta esku dardarkaz hartuz, beso mehe baino gihartsua luzatu eta airean irauli egiten zituen, gelaren alde batean sakabana-tzen ziren bitartean. Eskumuturrean zeraman erloju transkil bat, minuturo begiratzen zuen gauza zen, ordu zehatz bat itxarongo balu bezala.

Eta minutu eder horien barnean zeuden hirurogei segunduez baliaturik, gela nahastu hartan zeozter bilatzen jarraitzen zuen. Mutu eta txintik esan gabe

gela erdian zegoen mahaia. amorraren amorruez, hanka batetik heldu eta barnean zuen gorrotoaren indarra ateraz, gelatik at egotzi zuen. Txoko guziaz nahastu zituenean, ezker aldean utziriko orrietaz oroituz, euren gana hurbildu zen... Hauek, belar metak bailiran, lurrean zeuden eta gehiago pentsatu gabe tipo hau, ura izango balitz bezala, murgildu zen. Ordu laurden luze batez egon zen itsaso zuri hartan, orrien hotsa soilik entzuten zelarik. Une batez ixiltasun orokor bat nagusitu zen, harik eta, igerian zebilen tipoa, eskuetan orri bat zuela eta belarri ertz batetik bestera helden zitzaion irrifar eder bat zuelarik atxikitzen gelatik irteten arte. Sukaldera iritsi zen, eta sukaldea, gela ez bezala, txukundu eta garbitu gabe zegoela nabaria zen. Jadanik usteldurik zeukan egurrezko aulki batean eseri eta denboraren poderioz samurturik zeuzkan oinetako batzuk jantzi zituen. Aurkitutako orria, karpeta antzeko bi gainazal moreeen artean satu eta etxetik irteten zen.



Sarbil

U rte hasieran Iruñerriko toponimo bati buruz eztabaidatu zen 'Diario de Navarra-ren' 'Cartas al Director' izeneko atalean. Lehiakideak ziren Jose Jauregi, Pico de Orhi jubilatutako idazkaria, eta Juan Mari Feliu, Nafarroako mendizaleen federaziokoa. Aukeraturako izena: *El Cabezón de Etxauri*.

Jauregi izen horren aurka agertzen zen, «*absurdo nombre*» zela zioen. Jauregiaren ustez benetakoa izena *Santa Cruz* da. Feliuk, segituan erantzun zion. Mendizalearentzat ez bata ez bestea ez dira izen egokiak: «'cabezón' esaten diogu itxuragatik eta lagunartean. Alto de las Peñas de Etxauri ere bai, baina Santa Cruz soilik ermitaz ari garenean... Iruñetik ikusten den 'buruhandi' hori Alto de Sarbil da». Jauregi ez zuen etsi eta beste eskutitz batean *Santa Cruz* defendatu zuen, *Cabezón* gaitzetsiz eta *Sarbil* izena aipatu gabe.

Hala ere Feliuren esanak ontzat hartuko ditut, batez ere hiru izenak zein bere lekua egokian kokatzen jakin zuelako. Hasteko, fama txarreko *Cabezón de Etxauri* erabilpena ederki mugatu zuen. Lagunartean erabiltzeko, deskriptiboa oso. Baina, jakina, ezin da izen hori eraman liburu edo planoetara. Ez, lekuen zahar, eta gaur egun erabilia, aurrean dugunean. Santa Cruz-en zabalera ere ongi markatzen du. Santa Cruz ermita da, besterik ez. Feliuk eskutitz horretan gogorazten zuen nola hagonimoek —San Donato, Trinidad, San Miguel— izen zaharrak baztertu ohi zituzten —Berriain, Erga, Putregain— eta, hain zuzen ere, ez zuen nahi Sarbilen kasuan gauza bera gertatzea. Gainera, San Cristobal eta San Donaton ez bezala, inor gutxi baliatzen da Santa Cruz toponimoaz mendia izendatzeko.

Dudak uxatzearen Etxauribarko toponimia bildu duten Mikel Etxegarai eta Mikel Meloren eritziak jaso ditut. Horien ustez *Santa Cruz* ermita da eta *Sarbil* mendiaren izena. Bertakoek, Etxauribarkoek eta Gesalazkoek, hara joan behar dutenean *ir a Sarbil* diote, besterik ez. Hots, bertakoek ez dute hitz generikorik erabiltzen. Horientzat dena Sarbil da, batez ere guri interesatzen zaigun alderdia. Beraz, hori litza-teke tontorraren izena ere: *Sarbil*, huts hutsean. Sarbil, haatik, hori baino gehiago izaki, Etxauribarko Goñerriraino zabaltzen baita, badirudi generiko batekin osatu beharko genukeela. Mendizaleek haren beharra dute eta agian hitzunez *Gaina*, *Haitza*, *Barga* generikoen artean aukeratu beharko dute. Lagunartean *Etxauriko Barga* (Iruñerrian haitzaren adiera duen hitza) egokia litzateke. Baina ez ahaztu *Sarbil* dela benetakoa izena.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak

Xauli, Xauli

Xauli, xauli, hanka ezin irauli. Arratsaldean mozkor eta goizean egarri. Xauli, xauli, xauli.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

A L E N A L L O T Z R D
M R S I T Z E R L B O F
I K T Ñ G J T R A M S A
E Z A I B I H U I E P H
R E N A K R O K E H E N
A N K I D U O B K L L O
D A I K F A T S A I A T
S I L H A D O Z L Ñ U N
Z B A L A N A B A F L A
G A H O B E O R M E D N
H R A J E M B Z G S I A
D I Z A B E Ñ E N A R S

LETRA
ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Nafarroako 11 urtegi handien izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

Bizi Bizian



Mari Jose Rekalderen 'Egon'.

JOXE LACALLE

Mari Jose Rekalderi 'Egon' obrak lehen saria eman dio eskultura sailan. Deikaztelun bizi, baina Iruñean jaio zen 29 urteko gaztea, ikasketak Leioako Arte Eder fakultatean egin zituen. Duela bederatzita urtetik hona, urtero lanak aurkeztu ditu udalaren lehiaketan, eta behin hirugarren postua lortu zuen margolaritzan. Nafarroako 'Arte Plastikoak' lehiaketa birritan irabazi du, eta bakarkako erakusketak egin ditu Iruñea eta Lizarran.

GALDERA.— Zertarako balio dute lehiaketek?

ERANTZUNA.— Zure lana eza-gutarazteko bide bat da.

G.— Nor da Fernando Garcia Ez-peleta?

E.— Ez dakit.

G.— Iaz lehiaketan garaile atera zen.

E.— Egia da bai. Bere erakusketa ikusi nuen. Obrak gustatu zitzaizkidan. Materialak ordea ez.

G.— Eskultorerik gogokoena?

E.— Giacometti... eta Picasso ere oso ona zen.

G.— 'Egon' hitz bitan definitu.

E.— Nik eduki nuen txakur baten oroimenez egindako lana da.

G.— Eskulturak zuretzat ala besteentzat egiten dituzu?

E.— Niretzat, gero lana besteei erakusten badiet ere.

G.— Espero al duzu arteaz bizi-tzea?

E.— Horretan saiatzen ari naiz.

G.— Oteiza, zoroa ala jeniua?

E.— Ez da zoroa, ezta jeniua ere. Ona da, eta azkarra.

G.— Zer da Leioako eskola?

E.— Leioan gauza asko ezagutu nituen, baina dakidana nire alde-tik len eginik ikasi dut.

G.— Zeri edo nori ez zenioke inoiz eskultura bat eginen?


E.— Egun gauza natural gehiago egiten ditut artifizialak baino.

G.— Zerk bultzatzen zaitu eskul-turak egitera, beharrak ala na-hiak?

E.— Beharrak.

G.— Teknika ala kontzeptua?

E.— Bata zein besteari ez diot ga-rrantzirik ematen. Barrutik ate-ratzen zait egiten dudana.



Jose Luis Estebanen 'Hacia una estética consumista'.

J.L.

Jose Luis Esteban Esté-vezek 'Hacia una estética con-sumista' obrari zor dio argazki saileko lehen saria. Bartzelonan jaio zen, 1970. urtean, baina az-ken 18 urteak Iruñean eman ditu. Leioako Arte Ederretako Fakul-tateko lizentziatura eskuratu eta gero, egun eskultura doktoradu-

tza ikastaroa egiten ari da. 'Zumo de Navarra' eta 'Prisma Pamplo-na' aldizkarietan ekoizle eta zu-zendari gisa lan egin du.

GALDERA.— Zertarako balio dute lehiaketek?

ERANTZUNA.— Urtez urte adi bazabiltza jende gaztearen gara-pena ikus dezakezu, Udalaren

lehiaketa honekin.

G.— Nor da Jose Angel Ayerra?

E.— Ez dakit.

G.— Iaz 'Artista Gazteak' lehia-ketan garaile atera zen.

E.— Egia da! Ezagutzen dut. Ar-gazkigintzan ikertzen du eta bere lana gustatzen zait, bai.

G.— Argazkilaririk gogokoena?

E.— Ez nuke bakarrik aipatuko.

G.— Argazkiak zuretzako ala besteentzako ateratzen dituzu?

E.— Hori oraingoz ez dakit.

G.— Espero al duzu arteaz bizi-tzea?

E.— Gutxi lortzen dute hori.

G.— Mapplethorpe ala Leibo-vitz?

E.— Mapplethorpe. **G.**— Zer da 'Leioako eskola'?

E.— Añian eskola ez da, baina bai ordea iparraldeko artisten bilgu-nea.

G.— Zeri edo nori ez zenioke inoiz argazkirik aterako?


E.— Politikoei.

G.— Zerk bultzatzen zaitu argaz-kiak ateratzera: beharrak ala na-hiak?

E.— Hasieran gustatzen zitza-i-dalako egiten nuen, baina denbo-ra igaro ahala beharra bilakatu da.

Gazteak eta artistak

Iruñea, Artista Gaz-teak' lehiaketako es-kultura, margolaritza eta argazkigintzan sarituta-koen izenak plazaratu berri ditu Iruñeko Udalak. Epai-mahaiaren irudikoz, Mari Jose Rekalde, Mariasun Garde eta Jose Luis Esteba-nen lanak hoberenak izan dira aurkeztutako 158en ar-tean. Hiru artista gazteei ha-maikana galdera egin dizkie Juan Kruz Lakastak.



Mariasun Garderen 'La fuerza de una línea'. J.L.

Mariasun Garde Etxebe-riak 'La fuerza de una línea' obrari esker atera da irabazle margolaritza sailan. 1964ean jaioa, Leioako Arte Eder fakul-tatean egin zituen ikasketak. Bordelen, Bilbon, Bartzelonan eta Tenerifen talde erakusketak

egin ditu, eta bakarkakoak Iru-ñean birritan eta Bilbon beste be-hin. 1991 eta 1992an bigarren saria lortu zuen Udalaren lehia-ketan, «materiala erosteko dirua, besterik ez nuen lortu».

GALDERA.— Zertarako balio dute lehiaketek?

ERANTZUNA.— Honek areto ba-tean erakusketa egiteko aukera ematen dizu. **G.**— Nor da Itziar Alforja?

E.— Ideiarik ere ez.

G.— Iaz 'Artista Gazteak' lehia-ketan garaile atera zen.

E.— A bai! 'oinen' koadroa egin

zuen. Bai, badakit nor den. Hel-du den urtean Mariasun Garde nor den galdetu beharko da.

G.— Margolaririk gogokoena?

E.— Iruñeko baten izena esanen dizut, Jesus Burgoa.

G.— Saritutako obra hitz bitan definitu.

E.— Kontrajarritako indarren orekatzea.

G.— Zuretzako ala besteentzako margotzen duzu?

E.— Niretzako. Bestela asko sal-duko nuke.

G.— Arteaz bizitzea espero al du-zu?

E.— Inondik inora ez. Niretzat uto-pia da hori.

G.— Antonio Lopez ala Tapias?

E.— Tapias, dudarik gabe.

G.— Zer da 'Leioako eskola'?

E.— EGUNKARIA oso bat beharko nuke hori esplikatzeke. **G.**— Zer edo nor ez zenue inoiz margo-tuko?

E.— Ezin dut esan. Printzipioz guztia margotuko nuke. **G.**— Zerk bultzatzen zaitu margotze-ra, beharrak ala nahiak?

E.— Margotu nahi dudanez, mar-gotzeko beharra daukat.

G.— Teknika ala kontzeptua?

E.— Teknika eta kontzeptua.

Xabier
Iturriotz

zapatagilea

Eskulangileak, beraz, interesekoak dira. Berriak badira, are gehiago. Eta zapatagile berria dago duela zenbait astetatik Iruñean, Xabier Iturriotzek denda

paratu baitu Alde Zaharrean. Aitari ikasitakoarekin negozioa jartzea erabaki zuen duela bost bat urte, bere ustetan, eskuekin egindakoak ez duelako parerik.

«Eskulana makinarena baino hobea da»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Iruñeko Alde Zaharreko Ansoleaga kaleko denda berri eta dotorean botak egiten harrapatu genuen Xabier, berarendako botak, hain zuzen ere. «Probak egin beharra dago, eta horrela praktikan ikusten ditut akatsak». Egun soilik oinetakoekin ari da, baina aurrerantzean poltsak eta kartarak ere egin egingo dituela dio. «Horrek denbora asko eskatzen du, eta oraingoz nahikoa daukat botekin eta sandaliak».

EGUNKARIA.— Nola hasi zinen zapatagileen mundu honetan?

XABIER ITURRIOTZ.— Aita herriko zapatagilea zen, Legorretan, eta, beraz, hortik dator harremana. Herrian, ikas-

tolatik etxera joaten nintzen, bizikleta hartu eta zapatak banatzen nituen. Propina gero, neretzat. Gero, 17 urterekin, Gasteiz joan nintzen, ikastera, eta aita

hil zenean, astebururo, herriko zapatak konpontzen nituen. Ikasi, adituz eta aitari ikusita ikasi nuen Gero, Gasteizen gelditu nintzen, klaseak ematen, eta herrian beste zapatagile bat jarri zen. Orduan hasi nintzen buruari bueltaka, Gasteizen zapata denda jarri behar nuela, eta horrelaxe egin nuen.

EGUNKARIA.— Hasieran zapatak konpondu soilik egiten zen nuen, ala zureak ere egiten al zenituen?

ITURRIOTZ.— Hasieran konpondu soilik egiten nuen, nere aita zenak ere konpondu soilik egiten baitzuen. Baina Gasteizkoa dena berria zen, eta hasierako bezeroak etorri arte, denbora banuen. Beraz, udaberri batean larruzko sandaliak egiten hasi nintzen, eta

oso ondo atera zen. Baina nik botak egin nahi nituen, horretan ikasi behar nuen. Erosi nituen, bada, orkoiak, eta horrela hasi nintzen zapatak egiten. Orduan hasi zen jubilatutako zapatagile bat dendara joaten, eta poliki-poliki larrua eta patroiak lortu eta horrela hasi nintzen.

EGUNKARIA.— Oraindik ere konponketak egiten dituzu. Zein duzu gustukuena, zein da atseginena?

ITURRIOTZ.— Bota bat egitea oso polita da. Batez ere orkoitik bota egin ateratzen denean, ondo ateratzen bada, oso gustura gelditzen zarelako. Lana ere askoz handiagoa da, zapatak konpontzeak lan gutxiago eta diru gehiago ematen duelako.

EGUNKARIA.—

Zapatagile gehienek larrua bakarrik erabiltzen duzue. Zergatik?

ITURRIOTZ.—

Nik uste dut larrua oraindik material onena dela. Gehien


irauten duena da, transpirazioa ere oso ona dauka... Garestia da, baina lantegiko produkzioan sartzen ez bazara, material onenarekin egin behar da lan.

EGUNKARIA.— Zer motatako larrua erabiltzen duzue?

ITURRIOTZ.— Hau txekorrarena da, eta Palencia eta Gernikatik ekartzen dut, batez ere sandaliak egiteko. Gernikakoa gogorragoa da, eta horretarako aproposagoa.

EGUNKARIA.— Zer alde dago horrelako zapata baten eta beste baten artean?

ITURRIOTZ.— Batez ere prozesu guztia nahiko poliki egiten dela, eta denbora askorekin egindako lanak gehiago irauten du. Hari bat egiten hamar minutu ematen baduzu, lantegiko hari bat baino hobea izango da beti. Josten ordu



JOXE LACALLE

erdia ematen baduzu, eta makinak hiru minutu ematen badu, ba seguruenik hobea izango da zurea. Eskulana, berez, makinak baino hobea baita. Hori da alde handiena.

EGUNKARIA.— Eta jendeak oraindik estimatzen al du hori?

ITURRIOTZ.— Jendeak begiekin erosten du. Ez du begiratzen zer material den edo zenbat denbora eman duzun horretan. Hori berdin zaio jendeari: polita eta merkea baldin bada, erosiko du, baina ez eskuz eginda delako edo bi urte gehiago iraun behar diolako.

EGUNKARIA.— Beste tokietan

saltzen diren zapatak kalitatezkoak dira?

ITURRIOTZ.— Denetarik dago. Zapata ona badago, baina txarra gehiago. Materialen kalitatea ere asko aldatu da berrogei urte hauetan. Lehen zapata goitik behera larruzkoa zen, baina gero goma hasi zen, kolak, eta beste material batzuk. Askotan txarrak dira, baina merkeak, eta horren kontra ezin da konpetitu. Ehundaka zapata ateratzen dituzte, eta prezio oso onean. Neri materiala kostatzen zaidana baino merkeago.

EGUNKARIA.— Orain bost mi-

Eserita lan egiten duen zapatagileak hobeto konpontzen du zapata. Azkar egindako lana...

nututan zapatak konpontzen dituzten tailerrak zabaldu dira. Horren kontra lehiatzea ere zaila izango da...

ITURRIOTZ.— Bost minututan ezinezkoa da zapata ondo konpontzea, nahiz eta makina ona eduki eta oso azkar egin... Eserita lan egiten duen zapatagileak, hobeto konpontzen du zapata. Azkar egindako lana... baina ohiturak aldatzen ari dira, eta jendeak ez dauka denborarik zapatagilearengana joateko, gero haien bila joateko... Nahi du dena azkar egitea.

EGUNKARIA.— Hala ere, zapatagileak dira eskulangileen artean zabalduenetakoak.

ITURRIOTZ.— Gero eta gutxiago, hala ere. Jubilatuz doazen heinean, herrietan ez du inork zapatatendari jartzen.

EGUNKARIA.— Gasteizen lehen, orain Iruñean zaude. Desberdintasunik sumatu al duzu bi hirien artean?

ITURRIOTZ.— Hemengo Alde Zahara komertzialagoa da, hangoa baino askoz gehiago. Saltzeko eta, Alde Zaharrean jarri behar da negozioa. Ezin da auzo batera joan eskulanekin.

EGUNKARIA.— Zure aitak ez zituen zapatak egiten, konpondu bakarrik egiten zituen. Orain ikusiko bazintu, zer esango zizun?

ITURRIOTZ.— Arraroa egingo zitzaien, harrituta geldituko zen. Berak ez zuen inoiz pentsatuko seme bat zapatagile aterako zitzaien. Igual bera baino hobea atera naizela, igual haserretu...

MOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

